

## IRABAZI ITURRIAK

**Produktua saltzeagatiko diru sarrera** izango litzeteke gure irabazi- iturri nagusia. Hau da, produktua saltzeagatik zuzenean irabaziko genukeena. Bai denda fisikoetan, bai online egingo genituzkeen salmentaz ari gara, online salduta, bidaltze-gastuetatik ere etekin bat lortuko genuke.



**Erabiligatiko saria** ere izango dugu, hots, gure produktua gero eta gehiago kontsumitu, orduan eta irabazi handiagoak izango ditugu. Neurri jakin bateko poltsak egingo ditugu irabazi handiagoak lortzeko, izan ere, jendeak ezingo dituzte beste enpresa batzuetan erosi eta guregana jo beharko dute. Beraz, gure poltsak ezin direnez berrerabili, berriak erosi beharko dira etengabe. Merkeak dira, baina beharrezkoak produktua erabiltzeko.



Gure web orrian **publizitatea** jartzeko baimena emango diegu gure sektoreari edo produktuari hurbiltzen zaizkion enpresei. Horrela, hau ere irabazi iturri bat izango da guretzat.